


## EUSKALTZAIN BERRIARI ERANTZUNA

*Gasteizen, 1978 - IV - 28  
Armentziako Prudentzio Santuaren festaburuan*

*J. M. Satrustegi*

Arabako eskualdearentzat egun haundia da aurtengo Prudentzio Armentziakoaren festaburu hau. Lehenbiziko aldiz lurralde hontako euskaldun ospetsuen kondairan, euskaltzain batek bere sarrera hitzaldia gaur eman du Gasteizen.

Euskaltzaindiaren izenean ongietorria ematen diot nik gure lankide berriari. Zorionak Endrike, eta zorionak Arabari.



E. Knörr jauna euskaltzain sarrera hitzaldia ematen.

Zuen poza, arabarrok, Euskal Herri osoaren poza dela jakinarazi nahi dizuet nik orain. Aspaldiko arantza izkutua bagenuen euskaldunok geure herriminen zirrituren batean kokatua. Ez da erraz esateko gauza. Araban euskara hila da, esan ohi zen. Zazpi haurrideen hizkuntzan arabarren mintzoric ez genuen entzuten. Bai, mingarri zitzaidan, niri behintzat. Nafarroako atzerakada ikusita, Arabaren bidean gindoa-zela entzun behar izan dugu denbora luzean.

Eta beste batzutan isildu egiten ginen. Hobe ez aipatzea. Andere gazte lokartuaren arnasa zelako susmoa nahi genuen bihotzean bizirik atxiki, hil ezkilik jo gabe. Udaberri bateko argisenti itxaropentsuaren zai geneuden, arreba poxpoliña egun haundietako gona gorri eta edergailu guziekin plazaratzen ikusteko.

Arabak Euskal Herriko argisentia sumatu eta, azken urte hauetan, uste gabeko berpizte txalogarria bizi du. Aspaldiko oihan beltzean kukuak oihu eginik, Arabako Lautada guzira zabaldu da bere kantua. Negu luzeak atzeratu arazitako ernatze gurian berdaturik ikusten dugu zuen izpiritua.

Ez da hitz hutsen doinu merkea nerea, aspaldi aitortu gogo nuen poza baizik. Zuen zelai ederretako loratze hau neuk nola ikusi dutan esango dizuet orain.

Gasteizko gazteria topatu nuen lehenik. Begi ninietan sartuak ditut mendigoizale haien galtza lodiak; eta barneago bildurik, entzun nien kezka larria. Euskalduntzat zeukatzen beren burua eta berdeak ziren, itxaropena bezala, neska mutil alaien zamarrak.

Hitzaldien bat edo beste ematera deitu ninduten gero. Ezagutu ditut Gorbea mendiko kantaldiak eta hiriburuko lasterraldiak, bultzada osasungarri baten urrats odolduak.

Ikastolak izan ziren, gero, biziberritze honen lehen emaitza. Hiriburuko ikastola nagusia, alde batetik, eta herri txikietakoak, bestetik. Inork ez du esango hemendik aurrera Araban ez dela euskararik egiten. Aramaio eta beste herri batzutan egundaino gure aurrekoen hizkuntza galdu ez duten euskaldunengandik hartzera doaz haurtxo hauek hizkuntzaren argi piztua. Zubi haundi bat bezala da ekintza hau, Arabako euskaldun zaharrak eta atzetik datozkigunak euskara bizi baten harietan elkartuko dituen. Milaka urtez lurralde

hontan egin zen mintzairaren jarraipena. Ez alda pozteko berria?

Baina, bada beste zerbait gaur hemen aipatzekoa: ofizialtasuna. Ez nator Diputazioko jauregian gaudelakoz alfer hitzak haizatzerara. Aurkako giroa genuelarik salakuntza egiten saiatu baginen, abiada berrien garaian aitortza xume bat egitea bidezko da.

*Arabako Kultur Kontseilua* sortzea garrantzi haundiko urratsa izan zen. Gauazko lanetik egunazko ekintzara kultur-gintza aldatzea. Gogoan ditugu denok eragileen izenak, eta isil isila aurrera daraman lan txalogarria.

*Arabako Ikastetxe Unibersitaria* aipatu behar dut, gainera, etorkizun haundiko asmoa bezala. Lehenbiziko aldiz Euskal Filologi Saila Euskal Herriko unibersital mailan sortu duen ikastetxea.

Badakit, beste alde, ikastolen arazoan ere kezkatuak direla Diputazioko arduradunak. Bere kontu irekia zuen ikastolaren errekesta ikusirik, erantzun zabalago bat emateko gogotan ziren iazko udan. Euskara ikasi nahi duen haurrik eskolatu gabe ez uzteko zerbait. Hori esan zigun, behintzat, lendakari jaunak.

Prudentzio Armentiaokoaren festaburuan eta Diputazioko Jauregian Euskaltzaindiaren batzar hau egitean, Arabaren egoera kontuan daukagula adierazi nahi dizuegu. Pozgarri da euskaldun guzientzat euskararen alde hemen sortu den giroa. Ekarriko du laster bere emaitza; ekartzen hasia dela esango nuke nik euskaraz ikasi duten haurtxo hoiakin.

Asko da egiteko dagoena, baina lurra lantzea izan ohi da lanik txarrena, eta esker gabekoena. Negu beltzeko lana orain arte egindakoa. Ospatu dezagun haundizki Arabaren udaberrri itxaropentsua.

## EUSKALTZAINDIA ETA ARABA

Ez da lehenbiziko aldia Euskaltzaindiak bere batzarreak Araban egiten dituenak. Okondo, Aramaio eta beste zenbait lekutan bildu izan da lurralde hontako gizon ospetsuen izenak

ohoratzeko. Azkenekoa, zorionez gure artean dugun Odon Apraiz lankide maitearen omenez, orain garen toki berean.

Euskaltzaindiak eta, bere lau sortzaileetarik bat izan zen Arabako Diputazioak, elkar ezagutzen dute beraz. Ez hori bakarrik: elkargo bi hauek, eskuz-esku ari dira euskararen alorreko gauzetan lanean.

Aipatu ditudan ospakizun hoietakoren bat egin behar izan delarik, gaurkoa barne dela, harrerarik hoberena izan du Euskaltzaindiak Araban. Urteko diru laguntza esku zaba-  
lez geitu zaio azken urte hauetan. Aurrezki Kutxa Munizipala, beste alde, ari da Otxanda dorrean ordezkari-tza prestatzen.

Badira, hala ere, gutxiago ezagutzen diren beste harreman batzu. Araba oso loturik dago, haste hastetik, Euskaltzaindiaren urratsei. Aspaldikoa zen euskara zaintzez arduratuko zen elkarte bat sortzeko asmoa, edo gogoia behintzat, Euskal Herrian. Gero eta ugariago dira paper zaharretan agertzen ari diren berriak. Batzu lehenago besteak baino.

Lehenbiziko aldiz gai hontaz idatzi zuen gizona, arabarra da. Oinatin Euskaltzaindia sortu baino ehun urte lehenago, 1823ko ekainaren 29an, honako bertsu hauek idatzi zizkion Jose Paulo Ulibarri, Okondoko semeak, Pedro Novia de Salcedori, honen urte-betetze egunean:

Ogueta lau gizon  
bear dira icentau  
Guernicaco bazarrean  
euzkeraren ganean  
eguiteco aleguiñ au.

Harriturik uzten gaitu gizon honen ikuspegi zorrotzak. Ez zuen bakarrik hutsunea sumatu, eta bertsutan bere kezka salatu; hain zuzen ere, gaur Euskaltzaindiak dituen hogeita-lau gizonen taldea, nolabait, ordurako gogoan zuen. Eta sute-giko ferratzaile zen, herri seme argia.

Beste arabar batek sortuko zituen, gero, Araudien oinariak. 1918an Oinatiko Batzarre ondoan, eta honen aginduz, Erraimun Olabide izan zen aurre-egituraren gertatzaile, urte ber honen udazkenean.

1919ko irailaren 2an eman zuen Arabako Diputazioak, araudiak aztertu ondoan, Euskaltzaindia on hartzen zuelako erantzuna. Biharamunean Nafarroakoak.

Handik egun gutxira, irailaren 21ean, egin zen Donostiako Diputazioan Euskaltzaindiaren lehenbiziko batzarrea. Han ere barnean genuen Araba: Anjel Apraiz jauna izan zen bilerako idazkari. Gasteiztar ospetsu harek jaso zuen, beraz, Euskaltzaindiaren lenengo agiria.

Oinatiko Biltzarraen lau euskaltzain bakarrik ziren izendatu: Azkue, Kanpion, Eleizalde eta Urkixo. Donostiakoan aukeratu zituzten beste zortziak, eta haien artean Erraimun Olabide, arabarra.

Ez zen hobeki agertzen ahal Arabaren izena Euskaltzaindiaren sorrerako gertakizunetan. Edozein herrirentzat ohoregarri diren gizon haundiak dituzue, izar dizdiratsu, denbora berrien argisentan.

Baina, negua zen. Ekaitzak jo zuen eta galdu asmo ederrren lehenbiziko lorea. Berrogei urtez izozpean egondako landarea berpizterakoan igartuak ziren kimurik sendoenak, eta Olabide jaunak ez zuen jarraipenik izan.

Isilune egoskaitza izan da Arabarena Euskaltzaindian. Kezkati ginen, aspaldi, araudien izpiritua oso osorik betetzeko irrikan. Laugarren artikulua dioenez, "euskaltzain osoek, sortzez edo jatorriz Euskalerra guztikoak izan behar dute. Era hortara euskalki guztiek Euskaltzaindian beren ordezkaria izan dezaten".

Eta zuen herrialdea umezurtz agertzen zen.

Jakin ere, ez dakit negu luze hortan elurpean bezala gor-detako zuen euskaltzaletasunaren berri gehiegi bagenuen. Araba euskararentzat herri galdua ikusten zen azaletik, eta ez gara behar hainbat arduratu anaia eroriari eskua luzatzen.

Oso adierazgarria ikusten dut Federico Belaustegigoitiaren gertakizuna. Arabarra izanik, bizkaitar bihurtu dute gerra ondoko ikerzaleek.

Erraza da, nunbait, zuhaitz eroritik egurra egitea.

Baina, euskaltzaletasunaren enborra zutik dago Araban. Hitzez ez baina, jokabide jatorrez adierazi du oraikoan bere kasta, eta Euskaltzaindiak eginkizun pozgarri bat betetzen du izendapen hau egitean.

## KNÖRR

Gure lankide bizkor eta adiskide min, Endrike, zuk jaso duzu, hainbeste urteren buruan, Olabide zenak piztutako zuzia. Zu zara Arabako bigarren euskaltzain osoa. Hau da zure ohorea eta zure zama.

Uste dut esan beharrak nituela, hotz hotzean, gure arteko gauzak, festa eder honen argidurarekin batean zure erantzunkizunaz jabetu zaitez. Lanera deitzen zaitugu.

Ohorea esan dut. Ospakizunaren poza berekin du egun haundi honek. Eginkizun eder bat betetzeko aukeratua izan zara eta, euskararen uda-aldia amesten duten euskaltzale guzien begiak zugaran ezarriak dira gaur.

Gaspe zara. Duela hogeita hamar urte argitu zinduten zure aita amek, Tarragona itsas hegian. Gasteiztarra zen zure aita eta Mediter aldeko ur epelak dituzu amarengandik. Abizena zitzaigun zail eta arrotz. Oroitzen al-zara nola ahozkatu galdezka ginabiltzala, duela urte gutxi? Orduan zen hori.

Erromatar oso ezagun batek esana errepikatu dezake gaur, Euskal Herrian, Knörr sendiak: "Atzokoak gara eta dena betetzen dugu". Baina, ez da ugaritasunaren beteketa, nortasun berezi baten ezaugarria baizik, zuen izenak daramana.

Merkatalgoan, alkohol gabeko edari gorria esan nahi du.

Kirolgintzan, bi xirrikaren gaineko xirrindularien erresuma.

Kantaldietan hots haundiaren hobena Gorkak izango du, noski.

Jon ere barne da, bizar eta kitarra.

Zinegile gazteetan kartzela eta saria uztartuak dabiltz.

Euskaltzain oso eta Arabako ordezkari, Euskaltzaindian, Endrike.

Eta ez ditut hamabi haurrideak aipatu. Dozena erdi batek, behintzat, ikasia du euskara. Gero ere badaiteke zerbait.

Amets egin dut bart, aspaldiko partez amets argia. Araba guzia Knörr-tarren sendia zela amestu dut. Ehunetik berrogeita hamar biztanlek bazekien euskaraz. Orain arteko

azterketa guziak aldatu beharra ikusi dut, zazpi euskalkietan euskaldunena Araba dela jakinarazteko.

Endrike adiskidearen atea jo dut, ametsetan noski, eta mututurik gelditu naiz, ate zirritutik denak euskaraz ari zirela sukaldean entzunik. Eneko eta Garikoitz, bikote txikia barne dela, euskaltzain berriaren etxean ez da erdararik egiten. Aberzale zaratatsu eta politikari gehienek Euskal Herrian egin ez dutena.

Eta Israelgo mirakuluari begira egongo gara, gero, aho zabalik.

Ohore guzien argidurarekin, izendapenaren zama aipatu dizut nik. Lau urte hauetan zure bizilagun den Txari gazteak ikasia duke, oraikoz, etxe zokoan sarturik zenbait ordu luze alargunen bakardade motzean egoten. Ez harritu, Txari. Bihotzaren zimiko bat Euskal Herriarendako du zure senarrak. Hori du bigarren amodioa, zu zarelarik lehena. Ez harritu, beraz, eta ez gaitzitu, batzutan berandu airean etxeratzen bazaizu senarra.

Lehen nundik nora ibilia den jakitea ez da erraza. Biligarro txikiak poliki poliki belarrira esana dit, politika gauzetan askitito sarturik zebilela. Otoi, ez nehoi esan, etxean eta kanpoan baizik.

EGI-BATASUNA, PNVko gazteriari bere izena eman zion lehenik (1969-70). Talde horrekin hautsi eta AINTZINA sortu zuen 1971ean. AINTZINA, ETArekin elkartu zen beranduago (1972), eta zenbait bidegabekeria zela medio Endrike atera egin zen ETatik. 1976ean ESBen sartu, eta geroztik ez du beste etxerik aldatu.

Biligarro txikiaren esamesak alde batera utzirik, ekainaren 15eko hauteskundeetan deputatu-gaia zela, egunkariak irakurtzean jakin omen zuen Endrikek. Nola nahi izanik, ez da politikan lo egona.

Nahiz Euskaltzaindiak ez dion nehoi bere politikarik eragozten, erakunde kulturala den aldetik Euskaltzaindia bera ez da alderdi politiko baten alde agertzen.

Kulturgintzan ari zen lankide asko bereganatu du, azken aldi hontan, politika arazoak. Endrike! politika askotako uretan plastaka igarika egin ondoan, kulturgintzako fitxajea izan da hau. Arabak behar zaitu.

## HIZKUNTZA ARLOA

Hizkuntzaren politika da, batez ere, Euskaltzaindiari dagokiona. Horrexegatik, ezin ditu izendapenak itsu itsura egin. Hortarako gai diren gizonak bilatzen ahalegindu behar du.

E. Knörr, bai ikaskintzaz eta gero eraman duen jokabidez ere, egokia iduritu zaigu. Euskal Herrian, garai bateko giroan asko gertatzen zen eran, apaizgai mintegian egin zituen lehenik lau urte: Laguardiako Biasterin, lehenbizikoa, eta Gasteizen beste hiruak.

Filosofia ikasten hasi zen gero, Donostiako E.U.T.G.-n. Bigarren urtea Salamankan, eta beste lau Madrilen "Filosofia pura" delako arraman. Lizentziatua da.

Denbora berean eta, bereziki, udako oporraldiak baliatuz, hizkuntzen arloa zaindu zuen. Batxiller bukatu bezain laster, Frantzira joan zen 1965ko udatean. Itzulpenetan baliatuko du, gero, frantsesa, eta Gasteizko Mutikoen Institutuan hizkuntza honen irakasle izana da.

Hiru urte beranduago, 1968ko udan, Alemania aldera jo zuen, bere aurrekoen azternak ezagutu bidenabar hizkuntza hura ere ikasteko. Iaz, "Kirche und Leben" aldizkariak eratu-tako lehiaketa batean lehen saria irabazi zuen, Joxe Azurmendiren olerki baten itzulpen hoberena berak eginik. Geroztik, frantziskotarraren hamabi olerki alemanera itzultzeko eskabidea izan du. Ingeles eta katalana ere mintzo ditu.

Baina, ez dugu orain arte euskararik aipatu. Izan ere sei urteetan aldatu zen Gasteizera. 1953ko urte hortan bertan, etorri bezain laster, ikasi zuen euskarazko lehen kantua Nafarroako fraile batek erakutsirik. Gero lehortea.

Gasteizko Seminarioan egondako urteetan zeharo arrotzu zela, dio berak. Jatorduetan, denbora luzean, *El Diario del Alcázar de Toledo* irakurtzen zieten. Neuk ere otordu garaiean ikasi nituen Iruñean pasaizo hoiek guziak. Telepatia ote?

Frantsesaren ondotik, eta alemana baino lehen ekin zion euskara ikasteari, bere kontuz eta bakarka, 1965-66 ikastaroan. Bazituen, bera, ia hemeretzi urte euskalduntzen hasi orduko.

Ene iduriko, abizenaz kanpo badu euskaltzain berriak



beste zerbait alemanengandik hartua. Hasteko, gogotsu eta sakonki ikasi zuen gure hizkuntza. Salamankan egon zen urtean, bi ilabetez jarraitu zuen euskarazko eskoletara joaten, ez bait zuten bi ilabete baizik iraundu.

1969. Madrilgo ikastaroa bukatzean, berrogei eguneko euskal ikastaldia egin zuen Urretxun, gastuentzat diru piska bat lortzeko hiru astebete ostatu serbitzuan egon ondorean. Barne egoeran egindako ikastaldi horri zor diola gehienik, aitortzen du berak.

Urte hontan argitaratu zuen *Anaitasuna* aldizkarian lehen idazlana. Gero, abuztuan, Dimara joan zen Barandiaranekin. Etnologi gaiak aztertzen ditu astia duelarik.

Azkeneko euskal ikastaroa baserrian egin zuen. 1970ean ilabete batez egon zen mutil Ataunen, Barandiaranen sortetxean, lo Sara-ko etxean egiten zuela.

Berehala hasi zen euskara irakasten. Hau da bere maisutzako betekizuna:

1970. Euskarazko eskolak Gasteizen, soldadutzara joan arte.

1972. Irailean, Gernikako ikastolan irakasle.

1973. Espetxean ETAkoei frantzes eta euskara ematen zien. Aurreko urtean ere egona zen Martutenen bi ilabetez preso. Bigarren aldian Nanklaresen. Euskal Herriko gazte askoren hotelak.

1974. Gasteizko Olabide ikastolako irakasle, iazko iraila arte.

1977. Irailean, 1.500 ikasle euskalduntzeko eskolak antolatu zituen, 70 irakasle ordaindurekin, Gasteizen.

Denbora berean, "Colegio Universitario de Alava"-n irakasle izendatu zuten eta bertan jarraitzen du.

"Harriet-en hiztegiak" ari da tesina eta orobat tesia egiten; Mitxelenaren ardurapean.

## IDAZLANAK

Ulergaitza bada ere, hain ekintza tinkoan sarturik egonarren, izan du idazteko astia. Euskal Herriko aldizkari eta egunkariek maiz astintzen dute bere izena: ikus *Anaitasuna*, *Zeruko Argia*, *Norte-Expres*, *La Voz de España*, *El Correo Español*, *La Gaceta del Norte*, *Deia*, *Egin* eta abar. Daniel Ibargoiti izenordearekin ere agertu ditu bere lanak.

- Liburuak:* — *Jose Paulo Ulibarri* (biografia)  
 — *Gasteiz* (kondaira)  
 — *Nire lehen hitzak euskaraz* (haur hiztegia) elkarlanean.  
 — Ulibarri-ren *Gutun liburua*, San Martinek.  
 — *Odon Apraizen lanak*, aita Baztarrikarekin.

Azterketa gaietan argitaratu dituen lanak aipatuko ditugu:

“*Gamizen hizkerari buruz zertxobait*”

“*Odon Apraizen omenaldia*”.

“*Hiketa edo hitanoz zenbait gai*” (Euskeran argitaratuak hiruak)

“*Vasc, okela en las Ordenanzas de pastores de Legran*” (FLV.).

“Pequeña noticia de un gran euskaltzale alavés: Federico Belaustegioitia (1876-1947). Vida Vasca, 1978.

“Un inventario y partición de bienes de Jocano, de 1785” (elkarlanean) Sancho el Sabio aldizkarian.

Bukatzeko esan dezagun Euskaltzaindiaren zenbat batzordetan sartua den Endrike Knörr:

- Herri ta herritarrena
- Pertsona izendegia
- Irakaslegokoa
- Oinarri euskararena.

Eta horrenbestez aski.

Mundu zabal bat irekitzen da zure begien aurrean, Endrike. Asko da eskatzen zaiguna, eta asko gaur egin deza-keguna. Denbora berrien egunsentian lo zorroan bizitzeko eskubiderik ez daukagu. Euskararen berpiztea datorkigu atzetik.

Baina, “apaizak azken hitza bere” esaera zaharra entzun ez dezadan, Luzaideko baserritar batek erakutsi zidana errepikatuko dizut: “*alfer egoiteko, alferra bahar düzü izan*”.

Herri filosofia jatorrenean adierazi nahi digu, egiten ez duguna geure hobenez izango dela.

Ekin eta jarrai.

Gora Araba!!!

## CONTESTACION DEL ACADEMICO SR. SATRUSTEGUI (resumen)

La tradicional fiesta de San Prudencio sirve de marco excepcional, en esta ocasión, a un acontecimiento académico de particular interés. Por primera vez en la historia cultural del país, un académico alavés dicta su lección de ingreso en la primera Institución lingüística de Euskal Herria.

Yo, en nombre de la Real Academia de la Lengua Vasca, le doy la bienvenida.

Zorionak, Enrique. Y mi felicitación también a Alava.

Vuestra fiesta, alaveses, es compartida con gozo por todos los vascos amantes de su lengua. Este acto significa el reconocimiento a la labor callada y eficaz que vuestro pueblo viene realizando, en la recuperación de la lengua y cultura vasca.

Van quedando atrás los años de ostracismo y desarraigo, concebidos contra los valores autóctonos del pueblo vasco, que ahora todos lamentamos. Somos testigos del vigoroso movimiento de concienciación que refleja el callado empuje de las ikastolas, la sensibilización de la juventud, la proliferación de festivales vascos y la profusión de centros que promueven la enseñanza del euskera a los adultos, entre otras muchas manifestaciones.

Las autoridades provinciales de Alava, por otra parte, han querido interpretar la voluntad del pueblo, en estos últimos años, con la creación del *Consejo de Cultura de la Excma. Diputación Foral*, para propiciar y promover el conocimiento y estudio de nuestra cultura, ausente siempre de los programas oficiales.

La creación del *Colegio Universitario de Alava*, y la implantación de la Sección de Filología Vasca, nos hacen abri-

gar fundadas esperanzas de lo que es capaz de realizar Alava, al amparo de sus peculiaridades forales bien dosificadas.

Recuerdo muy bien los planes de bilingüismo que auguraba con calor el presidente de la Corporación D. Cayetano Ezquerro, en conversación que mantuvimos el verano pasado. *La materialización de un plan capaz de dar cabida a todos los aspirantes alaveses que quisieran recuperar la lengua de sus antepasados, sería la realización más ambiciosa concebida por un gobernante en la historia del País Vasco.*

La Real Academia de la Lengua Vasca sigue, paso a paso, la evolución de los acontecimientos culturales en nuestro pueblo, y es consciente de la moderna dinámica del pueblo alavés.

Sabe su voluntad de entrega a las causas nobles y ratifica su reconocimiento, con este acto académico celebrado en el Palacio Provincial.

## EUSKALTZAINDIA Y ALAVA

No es la primera vez que la Real Academia de la Lengua Vasca se reúne en Alava, en la historia más reciente de los últimos años. Oquendo, Aramaiona, etc. y, sobre todo, la última reunión en este mismo lugar con motivo del homenaje cálido al académico de Honor, Odón Apraiz, han servido para poner de manifiesto la cordialidad de los alaveses.

La Diputación Foral de Alava no ha olvidado nunca su paternidad, al ser cofundadora de esta Institución académica, juntamente con las otras tres Diputaciones vascas. Últimamente ha actualizado de manera ejemplar su aportación al sostenimiento de Euskaltzaindia, y prepara en la Torre de doña Ochanda los locales para la Delegación de la Academia en Alava.

Existe, sin embargo, un capítulo anterior, menos conocido, en la historia de las relaciones alavesas con la Real Academia de la Lengua Vasca. Fue un hombre lúcido de vuestra tierra quien primero plasmó, por escrito, la necesidad de crear una entidad tutelar de la lengua vasca. Cien años antes que su fundación en el Congreso de Estudios Vascos de Oñate

(1918), José Paulo Ulíbarri escribió unos versos, el día 29 de junio de 1823, y con clarividencia casi carismática decía:

*Ogueta lau guizon  
bear dira icentau  
Guernicaco bazarrean  
euzkeraren ganean  
eguiteco aleguiñ au.*

“Deben ser nombrados veinticuatro hombres en la Junta de Guernica para llevar adelante este empeño en torno al euskera”. De hecho son 24, en la actualidad, los responsables de la misma.

Otro alavés, el P. Raimundo Olabide, fue quien redactó el anteproyecto de los Estatutos que, una vez aprobados, regularon la marcha de Euskaltzaindia en su primera época.

La Diputación de Alava dio su conformidad al reglamento el día 2 de setiembre de 1919, una fecha antes que la de Navarra.

Constituida la Academia con el nombramiento de cuatro responsables en el citado Congreso de Estudios Vascos, se procedió al nombramiento de otros ocho miembros en la sede de la Diputación de Guipúzcoa, siendo secretario el ilustre alavés Angel Apraiz, quien firmó la primer acta de la Academia de la Lengua Vasca.

En esta misma sesión del día 21 de setiembre de 1919 fue nombrado académico de número el P. Olabide, aunque no llegó a pronunciar el reglamentario discurso de ingreso.

No pudo ser más activa la participación de Alava en los momentos iniciales de Euskaltzaindia. Sobrevinieron luego años difíciles que todos deploramos, y Alava quedó sin representante, a la muerte del titular en 1947.

Hoy, un hombre preparado y responsable, reanuda la trayectoria alavesa en la Real Academia de la Lengua Vasca.

ENRIQUE KNÖRR

La familia Knörr es una institución en la vida comercial, deportiva y cultural de Vitoria. Desde el punto de vista vasco, el cincuenta por cien de ellos, en la cuenta de los doce herma-

nos de Enrique, han aprendido el euskera. Imaginémonos el balance si fuera aplicable a la población nativa de la provincia.

El nuevo académico nació en Tarragona y vino al País Vasco a los seis años. Su padre era alavés y la madre catalana.

Estudió cuatro años en los seminarios de Laguardia y Vitoria. Terminado el bachillerato cursó Filosofía en varias universidades. 1.º en E.U.T.G. de San Sebastián. El segundo curso en Salamanca, y los cuatro últimos años de carrera en Madrid.

Ha mostrado especial interés por los idiomas. Fue profesor de francés en el Instituto masculino de Vitoria. Recientemente, ganó el primer premio del concurso organizado por la publicación "*Kirche und Leben*", para la mejor traducción al alemán, de una poesía del poeta vasco Joxé Azurmendi. Posteriormente ha recibido el encargo de traducir al mismo idioma doce poesías más. Habla inglés y catalán.

Aprendió euskera a los 19 años, iniciando el aprendizaje por su cuenta en el curso 1965-66. Al año siguiente frecuentó las clases de vasco durante los dos meses que se impartieron en Salamanca.

La dedicación más intensa tuvo lugar en el verano de 1969, realizando un cursillo de cuarenta días en régimen de internado, en Urretxu. Tuvo que trabajar para eso tres semanas de camarero, en un bar, sufragando así los gastos del cursillo.

Finalmente, trabajó durante un mes en las labores del campo, en el caserío donde nació D. José Miguel Barandiarán, en Ataun. Pernoctaba en la propia casa de D. José Miguel.

A partir de 1970 su actividad principal se centra en la docencia del euskera, tanto en las ikastolas de Guernica y 'Olabide' de Vitoria, como en diversos cursos organizados para adultos.

En la actualidad es profesor en el Colegio Universitario de Alava y prepara la tesis sobre el "*Diccionario de Harriet*", bajo la dirección del profesor Michelena.

Ha publicado numerosos artículos en distintos periódicos y revistas, utilizando en ocasiones el seudónimo Daniel Ibargoiti.

Cabe destacar en su producción literaria, la biografía de Jose Paulo Ulibarri. *Gasteiz*, como trabajo histórico, y el diccionario infantil "*Nire lehen hitzak euskaraz*", en colaboración con otros autores.

*Gutun liburua*, de J. P. Ulibarri, juntamente con Juan San Martín.

*Obras de Odon Apraiz*, en colaboración con el P. Bazarrica.

Es Delegado en Alava, de la Real Academia de la Lengua Vasca, y forma parte de varias comisiones de trabajo.